

## Renobales, punta-puntan

XI. Bergara Hiria  
Txapelketa irabazi du,  
23 urte azpikoetan,  
Igor Gutierrezekin ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-06-14 ▶ IV. urtea ▶ 911. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Tolosan jokatu da Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa

**FINALA** ▶ Lehen 10 sailkatuak lehiatuko dira finalean, irailaren 16an, 750. urteurreneko ekitaldien baitan

**XEDEAK** ▶ «Euskara bultzatzea eta gazteen sormena sustatzea» izango ditu ardatz hirugarren edizioak ▶ 2



Aurkezpenak iraun bitartean, graffiti hau egin zuten bi tolosarrek Koldo Mitxelena-ren kanpoaldean. HITZA



## «Arkitekturari egiten diodan omenaldia da»

**TOLOSA** ▶ Miguel Angel Oribek 'Aterpeak' eskultura erakusketa jarri du ikusgai Aranburu Jauregian, uztailaren 1a arte ▶ 3

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶

**ARESO** ▶

**Iriarte eta Sasiain pultsulariak, Europara begira** ▶ 4

**Astunenetan laugarren eginda, orain 640kora doaz tiralariak** ▶ 7



Elbarri eta 3. adin-erako bilatzen zenuen guztia!

- Gurpil-aulki elektrikoak
- Gurpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailerak igotzeko aparatuak
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIRU zerbitzua



Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURA

Tel.: 943 69 22 65 · Faxa: 943 69 43 89

posta elektronikoa: [mikelan@mikelan.com](mailto:mikelan@mikelan.com)

[www.mikelan.com](http://www.mikelan.com)

**Zure etorkizunak kontatzen du**

Zure lana, Zure lagunak, Zure familia, Zure bikotea, Zure kultura, Zure etorkizuna

**MATRIKULA ZAITEZ**

Berrio pasealekua, 90 - Donostia  
Tfn. 943 316 900 - [www.cebanc.com](http://www.cebanc.com)

**Cebanc-Cilea**

**EROI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

**OSTALARITZA ETA TURISMOA**

- Sarrera arloak.
- Sukaldaritza.
- Deterio arloak.
- Deterio agentziak.
- Turismo informazio eta merkataritza.

**INFORMATIKA**

- Informazio-sistemen administrazioa.
- Informatika aplikazioen garapena.
- Sistema informazioen ustapena.

**MERKATARITZA ETA MARKETINA**

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

**ADMINISTRATZEA**

- Administrazio eta finantza (IA eta OI).
- Kudeaketa.
- Administrazio-kudeaketa.

**LANBIDE HASTAPENEN KASTURTEA**

GIZARTEA ▶

# Euskara eta sormena xede, Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketan

Lehiaketaren finala Tolosan burutuko dute, irailaren 16an, lehen 10 sailkatuekin, 750. urteurrenaren ekitaldien baitan



Atzo burutu zuten lehiaketaren aurkezpen ekitaldia, Donostiako Koldo Mitxelenan. N. LATABURU

## NOELIA LATABURU

«Tolosa Graffitiaren museoa bilakatuko dugu, egun batez». Sonia Perez Topagunearen gazte saileko arduradunak gisa honetara heldu zion atzo Donostiako Koldo Mitxelenan eginiko Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketaren aurkezpenari. Duela hiru urte sortutako ekimen honek aurten goan Tolosan burutuko du finala, irailaren 16an. Jasotako zirriborro

guztien artean 10 aukeratuko ditu epaimahaiak, egunean bertan egileek esleitutako hormetan lan egin beharko dutelarik. «Marko paregabea izango da, izan ere, gure 750. urteurrena hil horretan ospatuko dugu», baieztatu zuen Gurutze Zubeldiak, 750. Urturrena Fundazioko zuzendariak.

Topaguneak —Euskara Elkartearen Federazioak— antolatzen duen lehiaketa honen bidez «gazte jendea euskara-

ren mundura erakartzea da helburua, gustukoak dituzten kultur adierazpide berriekin». Urtez urte, gainera, maila «hoberuntz» doala aipatu zuen Sanchezek. Helburuak ere «garbiak» direla esan zuen, «euskara bultzatzea eta gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzea», hain zuzen ere.

Bestalde, atzo ere agerraldian izan ziren Xabier Sanchez

## ZENBAIT DATU ▶

Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketan parte hartzeko interesgarriak dira datu hauek:

### BALDINTZAK

▶ 15 urte baino gehiago duten Euskal Herriko gazte euskaldunek har dezakete parte.

▶ Bakarka nahiz taldekako parte-hartzea onartuko da. Taldea gehienez lau lagunek osatuko dute.

▶ Teknika eta gaiak libreak dira.

▶ Graffiti testuarekin aurkeztuz gero, testua euskaraz idatzi beharko da.

▶ Lanak originala, norberak sortua izan behar du eta ez inongo beste lehiaketa batean aurkezturiko obrarik aurkeztu.

▶ Zirriborroa Din A3 formatuan eta koloreetan aurkeztuko da. Gaia, diseinua eta koloreak baloratuko dira.

▶ Guztien artean 10 aukeratu dira. Horiek izango dira irailaren 10an Tolosan 10:00etatik aurrera lehiatuko direnak. Horretarako horma bana esleituko zaie.

▶ Lehiakideek Montana Cans-en Gold gamako sprayak erabiliko dituzte, 2,5 x 5 metro inguruko hormetan Graffiti egiteko.

### HELBURUAK

▶ Gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzea.

▶ Gazteen izaera sortzaile eta beraien ekoizpen artistikoak gizarteratzea.

▶ Euskararen erabilera bultzatzea.

### IZEN-EMATEA

▶ Gaurtik abuztuaren 31ra bitartek gutuna bidali, Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa izenburupean.

▶ Helbidea: Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Arlozabal 8 bis, 1C. 48220 Abadiño (Bizkaia).

▶ Aipatu beharreko datuak: obraren izena, behar dituzten koloreen erreferentzia eta kopurua, egilearen edo egileen izen-abizenak, Nortasun Agiriaren fotokopia, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

### SARIAK

▶ 1.200 euroko 3 sari banatuko dituzte: Teknikaren erabilpen egokienari, koloreen erabilpen egokienari eta graffiti original eta freskoenari.

▶ Laugarren saria kalitateari: Eusko Label duten produktu sorta.

▶ Finalaren egunean bertan banatuko dituzte sariak.

## «Sari erakargarriak»

Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa irabazten dutenek, Tolosako hormak apainduz, sari erakargarriak izango dira. Lehen hiru sailkatuek 1.200 euroko kopurua poltsikoratuko dute, eta Kalitatea saria ere banatuko dute, zeinaren irabazleak Eusko Label duten hainbat produktuz osatutako sorta eramango duen etxera.

## KIROLA ▶

# Elikadura txirringularitzan hizpide bihar, Usabalen, kirol jardunaldietan

## N. LATABURU

«Euskara eguneroko bizimoduaren arlo guztietan normalizatze» erronkari eutsiz, Tolo-

sako Udaleko Euskara eta Hezikuntza sailak, Iñaki Arratibel kirol medikuaren babesarekin, bi jardunaldiak antolatu zituen. Lehena burutu ostean,

bihar bigarrenaren txanda izango da. Oraingoan, txirringularitzari egingo diote parte, elikadura gai zehatz moduan hartuta, 19:00etan, Usabalen. Antolatzaileek adierazi dute edozeinek har dezakeela parte, ez baitago txirringulariei mugatu. Hitzaldia euskaraz egingo du Arratibel medikuak, horixe baita helburuetako bat, «erreziklatzeko kirol ikastaro hauek bertako eta berezko hizkuntzan ematea».

## iragarki laburrak ▶

### OPARITZEKO

**Txakurkumea.** Arratoi zakurrak oparitzen dira. Interesatuak deitu 618 25 49 71ra.



## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

Uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Forala erabilita, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen, eta berak agindu bezala, 2006ko maiatzaren 30ean izandako osoko bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin honako hau erabaki zuten:

1.- Hemen aipatzen den ordenantza fiskala aldatzea:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

2.- 2006/2007 ikasturterako, zerbitzu publiko eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasa hauek aldatzea:

2.1.1 Eranskina: Haur Eskola.  
2.1.17 Eranskina: Musika eskola.  
2.1.18 Eranskina: Kultur lantergiak.  
2.1.19 Eranskina: Euskaltegia

Hartutako akordioak eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralak agindu bezala, honetarako iragarki argitaratuko dira bide ofizial honetan. Udaltzeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkaririk zabalduenetako batean. Hori dena arau hauen barruan:

A.- Non dauden agerian: Udal honetako Idazkaritzan.

B.- Aztertzeko eta erreklamatzeko epea: 30 egun abil, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun abiletik hasita, bulegoko orduetan.

C.- Kexa egin dezaketena: uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak.

D.- Non aurkeztu: Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean, Administraziozko Prozeduraren Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai.

E.- Non aurkeztu errekurtsua: Osoko Bilkura.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.


Tolosa, 2006ko maiatzak 31. ALKATEA. Jokin Bildarratz Sorron



Nafarroa etorb, 13 beheha - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Faxa: 943 65 03 13

**ERAKUSKETA ▶**


'Homenaje a Peña Ganchegui'. Collage paperez egindako lana, hau ere 2006an burututakoa. E. EZEIZA



'Recordando a Van Der Rohe'. 2006an zuzur egindako eskultura bat da. Izenburuak dioen bezala, Van Der Rhoe arkitektuari eginiko omenaldi bat da. E. EZEIZA



'Construcción V'. 2006an egindako eskultura, burdin, margo akriliko, latex, hondar eta egurrez. 50x50 zentimetro neurtzen ditu kuadro bakoitzak. E. EZEIZA



'Arkiteturak VI'. Kaliza harriaz egina dago eskultura hau. Artelan hau ere 2006an egin zuen Oribek. E. EZEIZA



'Ikuspegi orokorra'. Erakusketako gela bateko ikuspegi orokorra; bertan, burdinez, nahiz egurrez egindako eskulturak aurki daitezke. Denak ere, aurtan eginak. E. EZEIZA

**MIGUEL ANGEL ORIBE ▶ ESKULTOREA**

# «Arkitekturari egiten diodan omenaldi bat da hau»

Lasartearraren 56 artelan daude ikusgai Aranburu Jauregian

**ESTI EZEIZA**

Miguel Angel Oribe eskultore Lasartearraren 56 artelan daude ikusgai Aranburu Jauregian, uztailearen 1a arte. *Aterpeak (arkitekturatik eskulturara)* izenburupean, 2006 eta 2004an burdin, egur, harri eta collage-z egindako eskulturek osatzen dute proiektu hau. **Zergatik izenburu hori?** Laneko eskultura gehienek ar-

kitekturako elementuekin lotura dute. Esate baterako, *Hormak*; beti erakrri izan didate eraikuntza berrien zuloek eta hutsuneek. Horregatik, magia honek influentzia bat helarazi dit. Honekin batera, *Zutabeak*; aspalditik buruan nuen ideia bat zen, zutabeak apurtzearena eta zulatzearena. Izan ere, nire hormek eraikuntzako habe izan nahi dute. Bestalde, Peña Gantxegi eta Van der

Rohe bezalako arkitektu garrantzitsuei omenaldi bat egin nahi nien. Azken honen eraikuntza berriak eskultura erraldoiak direla baitirudite. Esan daiteke lan hau arkitekturari egiten diodan omenaldi bat dela. **Abesbatza Lehiaketari ere omenaldia egiten diozu zure artelanetako batekin...** Bi urte neramatzan gai honi buruzko artelan bat egin nahian. Izan ere, Tolosan ez



HITZA

datu: milaka zibilizazioentzat izan duen esanahia, magia eta filosofiak beti erakrri izan nau.

**Zer esan nahi dute zuretzat zulo, hutsune horiek?**

Adibidez, Oteizaren museora joaten zarenean, lehoiak daude, berez ez dauden lekuetan. Hau da, eraikuntza modernoean, lehoiak ez daude egon behar luketen lekuan. Hauetatik barna, bidaiatu egin dezakegula dirudi. Arkitektuak zulo eta hutsune hauek eraiki ditu, ez argia sartzeko bakarrik, baizik eta jendeak lehio hauetatik bidaiatu ahal izan dezan. Lan hauekin niri hunkiarazi nauen hori zabaldu nahi dut. Materia zeharkatzearena ideia metafisiko-poetikoa da, burnia apurtzearen nahia, eta lehen ez zuden hutsuneak sortzearena.

dago Abesbatzekin lotutako beste eskulturarik.

**18 urte inguru daramatzazu eskulture lanetan, zer aldaketa eman zituzu?**

Oso gazterik hasi nintzen eskultore, niretzako gauzak eginenez eta material ezberdinak erabiliz, eta ordutik gauza asko aldatu ditut. Baina zirkuluarekiko dudak ideia ez da al-

**iragarki laburrak ▶**
**LANPOSTUAK**

**Langileak.** Bergaran, Hernanin eta Errenterian honako lanpostuak bete behar dituzte: mantenimenduko peoiak, garbitzaileak, askotariko zerbitzuak, lorezainak. 943 31 37 82.  
**Mantenimendua.** Igeltseroak,

arotzak, elektrikariak, gidariak. Udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

**Haur hezitzaileak.** Plaza finkoak betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Harreragileak, telefonistak.** Plazak

libre. Eskola Agiria dutenetik aurrera. 943 31 37 82.

**Agiritegietako laguntzaileak.**

Arrasate, Bergara, Donostia, Soruluz eta Igorrerako behar dira. 943 31 37 82.

**Osakidetzak.** Plazak libre: teknikariak,

laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Sukaldariak.** Erixeetako jatebeetarako behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gidariak, txoferrak.** Plaza libreak

betetzeko hurrengo deialdiatarako. 1.800 euro hileko.

943 31 37 82.

**Peoiak.** Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak.

943 31 37 82.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

# Jon Ander Iriarte eta Igor Sasiain European lehiatzeko aukerekin

Antonio Climet trofeoan gutxieneko marka lortu zuten pultsulariek hamazazpi urte azpiko txapelketara joateko

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederrako pultsularien lorpenek ez dute etenik. Taldeko bi kidek Europako 17 urte azpiko Txapelketan parte hartzeko aukera dute. Igor Sasiain zizurkildarrak eta Jon Ander Iriarte billabonafarrak Gandian (Herrialde Katalanak) jokaturako Antonio Climet trofeoan gutxieneko marka lortu zuten.

Bi pultsulariekin hitz egin du HITZAK eta biak oso gustura agertu dira lorpenarekin. Oraindik ez dute ziurtatuta Europako Txapelketara joatea. Orain hiru asteko kontzentrazioa egin behar dute Valentzian (Herrialde Katalanak) Espainiako selekzioarekin, eta horren ondoren jakingo dute erabakia.

Batis Kortajarena Danena-Olaederra taldeko arduraduna ere oso gustura zegoen emaitzekin. «Zortzi mutil eramango dituzte txapelketara eta bi gure taldekoak izango dira. Lorpen handia da. Pena da Jon Sasiain ebaketa batetik osatzen ari dela, bestela bera ere joango zen eta orduan zortzitik hiru izango ziren Danena-Olaederrakoak», zioen.

Bi pultsulariek lehenengo postua lortu zuten bere kategorian Gandiako trofeoan. Iriartek (75 kiloko mailan) 105 kilo altxatu zituen arrankadan eta 120 kilo bi denboratan. Sasiainek (62 kiloko mailan) 87 kilo altxatu zituen arrankadan eta 103 bi denboratan. Biak gustura daude egindako lanagatik, baina Iriartek ez zuen



Jon Ander Iriarte eta Igor Sasiain, artxiboko irudian. I. GARCIA

bere burua ikusi ehuneko ehunean.

Egindako lorpenaren garrantziaz jabetzeko, kontuan hartu behar da aurten 15 urte betetzen dituztela biek eta, beraz, beraien aurkariak zaharagoak direla. Orain Europako Txapelketan «esperientzia» irabazi nahi dute. Ez dute beraien burua ikusten lehenengo postuetan. Bere helburua «marka hobetzea da» eta horrelako txapelketan batean aritzea ematen duen eskarmen-tua hartzea.

Antonio Climet trofeoan parte hartu zuten Danena-Olaederra taldeko beste pultsulariek ere oso emaitza onak lortu zituzten. Iker Hernandezek bigarren egin zuen 50 kiloko mailan eta Euskadiko 15 urte azpikoetan errekor berria ezarri zuen, 57 kilo altxatuz arrankadan; Jon Lopez hirugarren izan zen 56 kiloko mailan; Angel Martinek laugarren bukatu zuen 69 kiloko mailan, eta Julen Intxausti laugarren eta Jokin Urkizu zortzigarren izan ziren 85 kiloko mailan.

VILLABONA



Flemingo hainbat ikasle, atzo, Gurea antzokian. HITZA

## Gurasoei eskainitako antzezlanak

Arrakastatsua izan zen, atzo, Flemingo ikasleek eskainitako antzerki emanaldia. Idoia eta Julia monitoreekin urte guztian landutakoa gurasoei erakusteko aukera izan zuten txikienek. Eta, urduritasuna gaindituta, ondo moldatu ziren taula gainean.

ALEGIA ▶

## Altzoko ikasleen emanaldia Kultur Etxean

Altzoko 5 eta 6 urteko ikasleak eta LH4, LH5 eta LH6ko ikasleak joango dira gaur Alegiko Kultur Etxera. Bertan, San Joan Eskolako ikasleek aurrean hainbat emanaldi eskainiko dituzte goizean zehar. Bihar, aldiz, Alegiko ikasleek egingo diete bisita Altzokoei, bertako eskolan.

PILOTA ▶

## Beotibarren gaur HITZako finalerdiak daude

Gaur, Beotibar pilotalekuan, 20:30ean, HITZA Pilota Txapelketako 22 urte azpikoekin finalerdi bat jokatuko dute. Beobide-Loiola Larrañaga-Aranbururen aurka ariko dira. Bihar 18:30etik aurrera partidak ere egongo dira, eta finalurreak ere izango dira jokoan, hainbat mailatan.

VILLABONA ▶



Muñagorri Eskolakoek eskainitako emanaldiaren une bat. I. GARCIA

## Muñagorrikoen bisita Flemingera

Berastegiko Muñagorri eskolakoek bisita egin zieten atzo Villabonako Fleming eskolakoek. Berastegiarrek antzerki emanaldia eskaini zieten. 5 urtekoak, LH1koak eta LH2koak izan ziren antzezleak.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

PILOTA ▶

# Puntako pilotariak puntakoenetan aritu eta irabazle izan dira

23 urte azpikoen mailan Renobalesek eskuz binakako txapela eskuratu du Bergarako Hiria XI. Txapelketan



Igor Gutierrez eta Ugaitz Renobales, Bergarako saria eskutan. HITZA

NEREA URBIZU

Begarako pilotalekuan Bergarako Hiria XI. Pilota Txapelketako 23 urte azpikoen finala jokatu zuen Alegiako Ugaitz Renobalesek, eskuz binaka. 23 urte azpikoen mailan ibili da, bikote Gutierrez izan zuela. Aurkako pilotariak Aio-Apraiz izan ziren, eta 22-19ko emaitzarekin bukatu zuten norgehiagoka «borrokatua».

Ez zen itxura horrekin partida hasi. Izan ere, 19-8ko alde ere izan baitzen, Aurrera-Saiazen jokatzeko duen alegitarren alde, baina lasaitu egin ziren, eta azkenean 3 tantoko aldearekin garaitu zuten.

Egun pilotari handiak direnek Bergarako Txapelketa jokatu dute, hala nola, gaur egungo txapelkun Martinez de Irujok. Beraz, Renobales ere onenen artean egoteko beste ate bat ireki duela dirudi.


## Zazpi-Iturri ere txapelkun

Amezketako pilota eskolakoak ere Zaramagako torneoan ibili dira, eta 22 urte azpikoen mailan Zelaia-Ugartemendiak ez zuten zorte bera izan finalean, oso arerio gogorrak izan baitzituzten: 22-15 galdu zuten.

Benjaminetan garaile izan zen Altuna, Iribarrenen aurka. 18-14 irabazi zuen. «Oso partida borrokatua» izan zen, ordu bete iraun zuen, eta bere biziko partida jokatu omen zuen Altunak.

Alebinen mailan Zaramagako Txapelketan Urdangarin eta Jaka aritu ziren Añorgakoekin kontra, eta 18-6 irabazi zuten, erraz. Azken hau ere indartsu dator, partidetan arerioek ezin izan baitituzte 10 tanto baino gehiago egin. HITZA Txapelketan ere ari da, Otamendirekin batera, eta horretan ere «oso ondo aritu da», Urretxuko bikotearen aurka finala jokatuko baitu.

Pasa den igandean ere lizar-tzarrak Arronizko Txapelketa irabazi egin zuen, hau ere erraztasunez. Pilotazaleentzat, beraz, bada batekin eta bestearekin luzerako maila oneko pilota.



MILAKA  
ARRAZOI  
DITUGU  
GAUZAK  
GAINERAKOEK  
EZ BEZALA  
EGITEKO.

Ez da logikoa. Gainerakoek gauza berriak probatzeko adinik ez duzula pentsatzen badute ere, zu ausartu egin zara. Orain dela zortzi urte sortu ginen, gure herriarentzako konpainia izateko. Eta, gaur egun, 144 herrialdetan gaude zuri laguntzeko prest. Ez da logikoa.

Ez ditugu gauzak beste guztiek bezala egiten. Baina, gaur egun, milioi bat pertsonaren baino gehiagoren konpainia gara. Horregatik, lanean jarraituko dugu, gauzak gutxienez zuk espero bezain ondo egiteko. Euskaltel. Zuretzat.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Euskal Kopatik atgeratu da Ibarra

6 eta 8 galdu zuten Ibarra areto futbol taldeak EHUren aurka; epaileek hartutako erabakiek zeresan handia sortu zuten

IÑIGO TERRADILLOS

Ez da posible izan, eta Ibarra, finalaren atarian, Euskal Kopatik atgeratu da EHUren aurka 6 eta 8 galdu ostean. Jose Manuel Tobias Ibarraoren prentsa arduradunaren esanetan, deribietan ohikoa den moduan,

tentsio handiko partida ikusi ahal izan zuten Belabieta kiroldegira joan ziren zaleek.

Donostiarrek kontraerasoa baliatu zuten partida osoan, eta horrela sartu zituzten, hain zuzen, lehen bi golak. Karrerak Ibarraorentzat lehendabizikoa sartu zuten ondoren. Atsede-

naldira iritsi baino lehen, gol bana sartu zituzten bi taldeek penalti bikoitzez. Bigarren zatira emaitza horrekin helduko zirela zirudienean, beste kontraeraso batean donostiarrek laugarrena sartu zuten.

Bigarren zatian, EHUk segituan 5 falta egin zituen, baina

«une horretatik epaileek zirenak baina falta gutxiago ikusten hasi ziren». Hala, kontraerasoz bosgarrena sartu zuen EHUk. Ibarra sartu zuten ondoren, baina donostiarren seigarrena iritsi zen berehala. Hurrengo bi golak ibartarrek sartu zituzten; 5 eta 6 zegoen markagailua eta irabazteko itxaropenak ez zituzten galdu. Gol bana sartu zuten ondoren, eta minutu bat falta zenean epaileek ez zuten falta argi bat ikusi, eta hurrengo jokaldian EHUk 6 eta 8 jarri zuten markagailua. Horrela amaitu zen partida eta horrekin batera Ibarra Euskal Kopan jarraitzeko aukera. Agurtzerakoan, egin zuten lanarekin kexu, epaileak oihu artean agurtu zituzten zaleek.

IBARRA ▶

## Jaietako zozketako zenbakiak salgai daude

I. TERRADILLOS

Urtero bezala, salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkartearen eta Zubiaurren San Bartolome jaietako zozketako zenbakiak —3 zenbaki euro baten truke—. Aurten goan, Sahara Bizi, Tolosaldea Sahararekin elkartearantz izango da sarrietatik soberan geratzen den dirua.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Hedabideak bultzatu, euskara sendotu

Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ustez ezagupenetik erabilerarako jauzi kualitatiboa egitean datza datozen urteetarako erronka nagusia; euskara egunerokotasunerako hizkuntza izatea nahi dugu, lagunarteko hizkuntza, lanekoa, aisialdirakoa... eta horretarako hainbeste kontsumitzen diren hedabideetan euskararen presentzia esanguratsua bermatzea estrategikoa da. Euskararen erabilera bultzatzeko giltzari diren neurrian estrategikoak dira bai hedabideak, baina ez estrategikoak bakarrik. Hedabideekin batera badira beste hainbat arlo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatu eta sendotu behar dituenak: helduen euskalduntze-alfabetatzea, lan-mundua, haur eta gaztetxoentzat euskarazko harreman-sareak sendotzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskarari leku egokia egitea,

euskarazko eduki digitalak sortzea, administrazio publikoan euskara zerbitzu hizkuntza ezezik lan hizkuntza ere bihurtzea, EBPN udalerriz udalerriz gizarte-bizitzara zabaltzea.

Argitaratu berri den hedabideen deialdia bihurtu zaigu mintzagai azken egunotan eta benetako egoeraz zerkusirik ez duten hitzak bota dizkigute EKT-koei (Euskal Komunikazio Taldea). Kultura sailak «ez du euskarazko prentsa lagundu nahi, nahiago du ezinean ikustea enpresak sendotu eta euskarazko komunikazio eremua zabaltzen ikustea baino»... eta antzekoak idatzi dituzte, Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emanda aurten ere 1.848.200 euroko (307 milioi pezeta) diru laguntza jaso dezaketen arren. Eta egia esateko, Eusko Jaurilaritzaren diru laguntzak kontuan hartuta ez dago oinarrikerik horrelakoak esan eta hizkuntza politika deskalifikatzeko. Datuek ez dute hori adierazten, gutziz kontrakoa baino.

Azken 5 urteko epealdian (2002-2006) %38ko gehikuntza izan du hedabideen deialdiak

eta aurtengo deialdia ia zokoaekin konparatuz, nabarmena izan da igoera: prentsa lokalak %7,4ko igoera izan du eta %9ko gehikuntza izan dute udalerrietan eskualdeko gaindikotako prentsak, Internet bidezko euskarazko hutsezko aldizkariak eta irriatiak. Eusko Jaurilaritzari dagokion lehentasuna gutxienez lurralde historiko mailako prentsa dela uste dugulako lehenetsi dugu eskualdeko gaindikotako hedabideen alorra. Toki telebistena izan da, dena den, igoerarik nabarmenena izan duen arloa (%233,30eko gehikuntza, guztira 500.000 euro), gutziz garrantzitsua delako hainbeste telebista berri izango ditugun mundu honetan euskarazko presentzia duina eta sendoa izatea. Ildo beretik TTDen dekretuan ere hizkuntza irizpideak sartu ditugu telebista guztietan euskararen presentzia duina lortu asmoz, gaztelania hutsezko telebistek atek itxiz eta euskara hutsezkoari irekiz.

Bestalde, euskararen presentzia hedabideetan gero eta esanguratsua egin nahian, gaztelania nagusi duten egunkarietan ere, euskal irakurle potentziala-

ren gehiengoak irakurtzen duen prentsa dela kontuan hartuta, euskara hutsezko gehigarriak sortzeko diru laguntza ildo berria ezarri dugu horretarako 507.650 euro jarritz. Prentsa bideratutakoaren %12 bakarrik, baina, gure ustez, euskara hutsezko prentsak du lehentasuna, CIESen arabera 887.000 irakurle dituzten arren gaztelera nagusi duten egunkariak.

«Kultura sailak ez du euskarazko prentsa lagundu nahi» esatea zorritzarekin batuztatzen ohiko bihurtu bada ere, polemika honen guztiaren aurrean pare bat gauza baino ez batetik, aipatutako datuak argi uzten dutela zer nolako garrantzia ematen diegun hedabideei, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru laguntza deialdiaren %43,9a denean hedabideetarako. Irakurleak epaituko du kopuru horiek banatzean hedabideak arlo estrategikotzat hartzen ditugun ala ez. Bestalde, euskalgintzaren alor guztietan aurrera egiteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahi dut. Euskalgintza oso plurala da, ugariak dira lan-esparruak, hainbat eragile-

ak eta iritziak eta interesak askotarikoak. Guztien arteko errespetuzko lankidetzak, herri aginteen eta eragile pribatuen arteko osagarritasuna eta lankidetzak ezinbestekoak ditugu euskararen erabilerak aurrera egiteko.

Amaitzeko hedabideen alor honek diru kopuruetatik haratago doan gogoeta merezi duela adierazi nahiko nuke, gakoa ez dagoela hedabideetarako jarritako diru kopuruan, baizik eta hedabideen irakurle eta ikusentzuen espektatibak nola bete asmatzean, gakoa gero eta kalitate hobea izango duten produktuak sortzean dago eta produktuaren bideragarritasuna eta aniztasuna bermatzean. Azken batean, gero eta irakurle eta ikusentzuen gehiago irabaztea dugu helburu.

Zalantzarik gabe, hedabideen ekarpena erabakigarria zaigu euskara biziberritzeko prozesuan eta etorkizunaren ere hala izango delakoan gaudelako izan dute eta izango dute Eusko Jaurilaritzaren bultzada euskarazko hedabideek.

PATXI BAZTARRIKA ▶ HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

iragarki laburrak ▶



Pablo Gorosabel, 40  
1. plusa - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87  
mug.: 669 368 994

**Alkiza.** Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.  
**Alkiza.** Familia bakarreko txaleta, 4.000 m<sup>2</sup> dituen lursailarekin. 120 m<sup>2</sup> dituzten 3 solairu.  
**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Iggogailuarekin. Ikuspegi ederrak.  
**Andoain.** Eraberritutako 70m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Sartzeko. Kanpoaldera, eguzkitsua.  
**Belautza.** Bi familientzako etxea.

Bi solairu, 270 m<sup>2</sup>-ko lursaila.  
**Berastegi.** Familia bakarreko txaleta. 3.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.  
**Donostia.** Antigua auzoan, Eskolta Real. Berritutako etxebizitza, kanpoaldera.  
**Tolosa.** Zumalakarregi. 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Trinkete plaza. 3 logelako etxebizitza, egongela, sukalde, terrazarekin, bainugela eta komunak, garaje itxia.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel.

Apartamentua. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.  
**Tolosa.** Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik.  
**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakuslehi.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 45 m<sup>2</sup>-ko lokal ederra salgai. Erakuslehi handia.  
**Tolosa.** Santa Maria. 3 logela,

egongela, sukaldia, bainugela, komuna. Bikaina. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Zaballarreta. 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldia, terrazarekin, bainugela eta komunak; garaje itxia eta trasteleku.  
**Tolosa.** Usabal. 350 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokeran, abuztutik aurrera. Bulegoa, bainugela, bi garabi-zubiz prestatutakoa, ofizinak, bainugelak...  
**Errioxa.** Etxe atxikiak eta etxebizitzak ditugu, Logroño eta Najeratik gertu.

ARESO ▶ SOKATIRA

# Astunenetan laugarren, orain 640kora

Areso sokatira taldea «gustura» dago; asteburuan bi jardunaldi ditu jarraian

JAIONE ASTIBIA

Pasa den larunbatean jokatu zuten 680 kiloko hirugarren jardunaldia Euskal Herriko Sokatira Txapelketan. Egunean egindakoarekin «gustura» zeuden Areso sokatira taldekoak, eta baita azken sailkapenean lortutako laugarren lekuarekin ere.

«Oso gogorra eta luzea» egin zitzairen Goiherriko saioaren hasiera bera. Hain zuzen, etxeko taldearekin hastea suertatu zitzairen ere eta «lurra ere gogorra», oso tiraldi luzea egin zuten aurrenekoak. «Bina faltarekin jarri ginen eta gureganatzeko metro erdi falta zitzaigula, hirugarrena eman ziguten». Halaxe azaldu diote HITZARI taldeko kideek. Bueltakoan «presaka samar» ibili omen ziren eta bizkaitarrentzat izan zen soka. Saio hau galdu zuen Aresok; baina Nuarberen aurkakoa berdin (honek irabazi zuen txapela) eta gainerako guztiei irabazi egin zien: «Lurra gogorra zegoen eta tiraldiak gogorrak izan ziren denak; pultsuan eta besoekin egin beharrekoak», zehaztu dute.

Eguneko sailkapenean hirugarren gelditu zen, Nuarbe eta Goiherriren ondoren. Eta orokorrean, berriz, laugarren.

Dagoneko, ordea, heldu asteburuan jarrita dituzte asmoak aresoarrek. Izan ere, 640 kiloko pisuan larunbatean bertan hasiko baitira (Gaztelun, 17:00etan); eta biharamonean izanen dute bigarren saioa ere: bi egun jarraietan lehiatu beharrean dira, beraz.

## SOKATIRA TXAPELKETA ▶ LUR GAINEKOA

### 680 KILOKO AZKEN SAILKAPENA

1. Nuarbe: 17,5 puntu.
2. Goiherri: 13,5 puntu.
3. Gaztedi A: 13 puntu.
4. **Areso: 9,5 puntu.**
5. Mutriku: 6,5 puntu.
6. Gaztedi B: 3 puntu.

### 640 KILOKO AURRENEKO BI SAIOK

**Parte-hartzaileak.** Areso, Nuarbe, Goiherri A eta B, Gaztedi A eta B, Mutriku.  
**Aurrenekoa.** Gaztelun, hilaren 17an, 17:00etan  
**Bigarrena.** Laukizen, hilaren 18an, 11:00etan.

«Beroarekin eta erretxinarekin eskuek asko sufritzen dute eta ikusiko dugu iganderako nola gelditzen zaizkigun», zioten. Erabiltzen duten erretxina aguarrasekin egindakoa ere izaki, sokari tenk eutsi beharrez, eskuak «erre» egiten zaizkie.

### «Lehiatzera» doaz

680 kiloko taldea «egiteko» baliatu dute aresoarrek; taldeko tiratzaile berriek lehiarekin harremana hartzeko ere bai, eta «gustura» daude lortutakoarekin. Orain «640ekoan lehiatzera joanen gara», baieztatu dute. Horrela, gazteekin ez ezik eskarmetuko tiratzaileak sartuko omen dituzte sokara, besteak beste.

PILOTA ▶

## Arronizko Txapelketan jokaturako hiru finaletan irabazi egin dute

Aurrera pilota eskolako bost pilotarik txapelak irabazi berri dituzte

ERREDAKZIOA

Arronizko pilota txapelketan hiru mailetako finaletara ailegatu eta hirurak irabazita itzuli dira Leitzako eta Aresoko bost gaztetxo, adinean adinekoekin.

Gaztetxoenetan, benjaminen mailan, Mikel Sagastibeltza Lasartek, Larunbe burlatarra lagun zuela, 18-6 irabazi zuen Bakaikoa-Medinaren aurkakoa; alebinetan, Anartz Olano aresoarrek eta Jon Iparragirre leitzarrak osatutako bikoteak, berriz, 18-15 eginda lortu zuten txapela, De la Fuente-Rennerekin; azkenik, infantiletan, Xabier eta Jon



X. eta J. Jaunarena, Sagastibeltza, Olano eta Iparragirre. HITZA

Jaunarena anaiek 18-7 irabazi zieten Iraizotz-Barberenari. Jaunarenatarrek igande goizean sari bat irabazi bazuten,

arratsaldean beste bat lortu zuten, Etxauriko txapelketan, zehazki, 18-5eko aldearekin, Juanena-Jauregirekin.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA



## Herrigunean, gasolindegia zaharra bota dute

J. Astibia ▶ Atzo arratsaldean herrigunean kokatuta zegoen gasolindegia zaharrena eraikina botatzen aritu zen hondeamakina bat. Urbina S.L. enpresa ari da lan horretan. Aurretik lurpe-

ko erregaien biltegien inertizazioa egiten aritu ziren, garbiketa eta gasak bilduz. Atzo eraikina eraisteari ekin zioten. Ondoren, biltegien urraketa ere eginen dute. JAIONE ASTIBIA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶

**Millan Irizar Bengoetxea**  
(Amaia gure lankidearen aita)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

**ETXERAINO**

Etxeraino S.L.

ORMAIZTEGI, 2006ko ekainaren 14a



**AGENDA ▶**

**HITZALDIAK**

**Amezketeta.** Nola eraman artikulazioen higadura. 16:00etan, Ugarte auzoko liburutegian.  
**Tolosa.** Nazio Garapenerako Biltzarren mintegi irekia. 19:30ean, batzar aretoan.

**JAIKAIK**

**Anoeta.** Udalaren egitaraua: 18:45ean, Kukuaren etorrera iragarriko dute txalapartariak; 19:00etan, jaien hasierako txupinazoa plazan: Kukuaren jaitsiera eta ume eta gaztekoen danborrada, Lagunak txarangarekin; 19:15ean, sardina jatea; 23:00etan, Jauregi eta Oihana trikitilariak. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 18:30ean, jaien hasiera txupinazo eta pregoiarekin; 19:00etan, PNV/EA: hiru urte anoetarron eskubideak urratzen. Konponbidea orain kontzentrazioa; ondoren, trikopotea; 23:00etan, herriko trikitilariak.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Musika Eskolako perkusio taldea. 19:00etan, Musika Eskolan.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** Los cuatrocientos golpes. 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Txikiak ere indartsu

**TOLOSALDEA ▶** Eskola Txikien Festan izan dira Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkilgoak ere



Alkizako Herri Eskolako artistak, margolanak egiten. HITZA



Igeldon egun-pasa polita igaro zuen Berrobiko talde honek. HITZA

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**

Nikolas Aldazabal eta Graxitxo Urruzola.  
Gaur urrezko ezteiak.  
Zorionak senideen partetik.



**URTE ASKOAN**

Cristina Ezagirre. Zorionak atzoko partez, senarra, seme-alaba eta Ander, Asier eta Oihanen partetik.



**URTE ASKOAN**

Nahia Omaira (Berrobi). Zorionak, birripitin. Maddi, aitaxo eta amabixoren partetik.



**URTE ASKOAN**

Irati Sainz Egizabal. Zorionak, Pottiki, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat allabo, amaño eta eteko guztien partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea

**ERREDAKZIOA**

**G**iro ederra sortu zen igandean. Igeldon (Gipuzkoa). Izan ere, 27 herri txikiak egin zuten bat Eskola Txikiak Festa ospatzeko. Eta Tolosaldeko ordezkariak ere ez zuten hutsik egin jai eta aldarrikapen egunean: Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkilgo eskoletako haur eta helduak izan ziren Igeldon.

Denetik izan zuten egunaz gozatzeko: goizean haur jolasetan aritzeko aukera izan zuten, eta gero bazkarian elkartu ziren. Bazkal ondoren, Pirritx eta Porrotx pailazok ikuskizuna eskaini zieten etxeko txikienei. Buruhandien aurretik ihesi ere bat baino gehiago aritu zen. Eta Triki Take musika taldearen doinupean gorputza mugituz eman zioten bukaera Eskola Txikien egunari.

## Harpidedunen txokoa

**Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu**

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

**Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!**

**PARTE HARTZEKO:**  
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb, 5 • TOLOSA**  
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAN **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

**1 TENERIFERA BIDAIA**

2 lagunentzat astebeteko egonaldia



**LAUTREK**  
bidaia agentzia  
korreo kalea, 52 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21  
Faxa: 943 67 39 12  
zure neurritako bidaiak antolatzen ditugu

**2 OTORDU EDERRA**

2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean



Berjaldegi Plaza, z/g • Tolosa  
Tel.: 943 88 28 93

**bete zure datuak**

Harpidedunaren kodea.....  
Izena.....  
Abizenak.....  
Helbidea.....  
Herria.....P.K.....  
Telefonoa.....  
Pelektronikoa.....